

## **"Eskubidea" non dagoen**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-01-12: 3.

ETAko presoaz ari da Enrique Villar jauna, hemen gobernu espainolaren ordezkaria, kazetari bati erantzuten. Euskal presoen hurbiltzearen gaiari giza-eskubidea zor zaion, ala merkeago den baldintza gisa aplikatzea nahikoa den. Bereizketak egiten ditu, dagokion bezala. Onartzen du hemengo askatasunaren jardun soila dela, baina bestalde, ziur dago bere baitan euskal alderdiek defendatzen duten ETA-ko presoen hurbiltzea hauentzat laguntza bizia izatea suertatzen dela, eta inguramen honetan kokaturik gaiak larriki kezkatzen duela. "GALen kasuan hainbat!", argitzen du berehala. Badaki ongi HB eta ETARI mesede egingo liokeen neurri honen aurka PP bakarrik aurkitzen dela, eta PSOEn senitarte espainiarrari lotua gainera. Halere, nabaritasun hauen aurrean ere, zera ikusten du, bere alderdiari hemendik datorkion kalte politikoa! Demokraziaren jokoan datozen erantzukizunak hartzeko prest ez dagoena ez da, ordea, garbi jokatzeko ari; lortutakoaren ondorioetan desabantailak, abantailak bezain zuzenekoak dira. Bietara egon behar da agintean ere, berak bere hizkuntza kastizoan esango lukeen modura diot gurean jarrita: Gogorretara eta bigunetara.